



Expertos en biotecnología forestal se reunieron en Vitoria

texto y fotografía N. T.

El Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, Neiker-Tecnalia, ha organizado, junto a Korean Forest Research Institute (KFRI) el III Congreso Internacional del grupo IUFRO sobre embriogénesis somática y otras técnicas de propagación vegetativa. Este año el título del congreso fue "Producción de plantas leñosas integrando tecnologías de propagación vegetativa y genética". El congreso se celebró en el palacio Villasuso de Vitoria-Gasteiz y fue inaugurado por el viceconsejero de Agricultura, Pesca y política Alimentaria del Gobierno Vasco, Bittor Oroz, y el alcalde de Vitoria, Javier Maroto. El evento es una de las citas más importantes del calendario científico y técnico del sector forestal internacional.

Aztik eta La Salve-garagardoa -hitzarmena

testua eta argazkia N. H.



Aztik eta La Salve-Bilbaok lankidetzat-hitzarmen bat sinatu dute, eta, haren bidez, konpromisoa hartu dute zortzi berrikuntza- eta garapen-proiektu gauatzeko. Bi erakundeak hasi dira elkarrekin lanean, eta hala jarraituko dute 2017ra arte. Aztiko ikertzaileak arduratuko dira bilbotar produktua berrikuntzaren eta garapenaren erreferente bihurtzen elikagaien sektorean eta, zehatzago esanda, edarien sektorean.

La Salve-Bilbao euskal enpresak bere historia eta ezagutza berreskuratu nahi ditu, eta berrikuntzaren aldeko apustuagatik nabarmendu. Hori dela eta, euskal enpresak urteko irabazien %20 inbertituko du kontzeptu horietan, Espainiako lider bihurtzeko asmoz. La Salve-Bilbaoko sustatzaile Jon Ruizen arabera, "zortzi proiektu hauen bidez, Espainia guztiko garagardoaren erreferentzia- eta azterketa-puntu bihurtu nahi dugu Bilbo".

Lehen ekimena eta garrantzitsua 2016an La Salve-Bilbao tokioa merkaturatzea da. Produktu horretan, osagaien %40 tokioak dira, 100 kilometro baino gutxiagora jarduten duten ekoizleak. Proiektu hau oso garrantzitsua da La Salverentzat, tokiko produktuekiko eta klima-aldaketa geldiarazteko konpromisoaren erakusgarri baita.

La Salve-Bilbaok konpromisoa honi eusten dio: bezeroek benetako garagardoa edatea eta ahalik eta informazio gehiena izatea. Halaber, Aztik ibilbide luzea egin du herritar kontsumitzaileekin azterketak egiten eta lankidetzan aritzen elikagaien berrikuntza sustatzeko haien eskaerak eta beharrak produktu eta zerbitzu berri gisa proiektatuz. Bi helburuek bat egiten dute erakunde bat martxan jartzeko apustuarekin: Garagardoaren Institutua. Haren helburua da bezeroei aldi-aldi informazio erabilgarria ematea. Helburu diren publiko desberdinetako ordezkariak osatuko dute erakunde hori: bezeroak, enpresako bazkideak, erakundeak eta komunikabideak. Asmoa da garagardoaren munduko joeren eta kategoria gehigarrien behatoki bat sortzea.

Beste lan-ildo bat da glutenik gabeko Europako benetako lehen garagardoa garatzea eta merkaturatzea. Produktu batzuekiko intolerantziek planteamendu berri bat sortu dute, zeliakoentzat egokia den produktu bat eskaintzea xede duena. Ildo horri jarraituz, Aztik eta La Salve-Bilbaok alkoholik gabeko benetako lehen garagardoa ere diseinatuko dute. La Salve-Bilbao alkoholik gabea aitzindaria izango da produktu-gama honetan, eta 2017an egongo da eskuragarri. Orobat, bosgarren proiektu gisa, Garagardoaren Dekalogo Sentsoriala finkatuko da, eta bi lan-ildo izango ditu: batetik, azken bezeroa ardatz izanik, kalitateko produktuak balioesteko garagardo-kultura bat modu errazean bereganatzeko kontsumo-ereduak eskaintzea; eta, bestetik, ekoizlea ardatz izanik, azken produktuen parametroak zehazteko eta haiek homogeneo bihurtzeko elementuak eta adierazleak ematea.

El objetivo principal del simposio fue fomentar el desarrollo, la optimización y la aplicación industrial de modernas técnicas de propagación vegetativa como la embriogénesis somática. Es un proceso por el cual se produce una estructura bipolar (embrión) a partir de una célula somática (no sexual). Se obtienen embriones no cigóticos (que no se forman sexualmente) a los que se denomina embriones somáticos.

Un total 120 expertos de los cinco continentes participaron en este congreso. Entre ellos, y presentando sus últimos descubrimientos, se encuentran los más prestigiosos investigadores en el área de la propagación vegetativa de especies leñosas a nivel internacional. Los expertos harán hincapié en la necesidad de que los gobiernos inviertan en ciencia con el fin de unir la investigación que se lleva a cabo en los laboratorios con los sectores empresariales, tal y como se está realizando en los países más avanzados del ámbito forestal (EEUU, Canadá, Chile, Nueva Zelanda).

Entre los científicos asistentes destacaron Yill-Sung Park (Canadian Forest Services), que presentará sus últimos avances en el desarrollo de embriogénesis somática en coníferas y su aplicación para la silvicultura multi-varietal. Yousry A. El-Kassaby, jefe del Departamento de Gestión de Recursos Forestales de la Universidad de Columbia, que tratará sobre selección genómica y silvicultura clonal. Este experto fue reconocido con el premio de la Unión Internacional de Organizaciones de Investigación Forestal al logro Científico 2010; Pramod Gupta de la empresa estadounidense Weyerhaeuser, que produce millones de plantas forestales anualmente mediante éstas técnicas; Ulrika Egersdotter, leader de proyectos de la empresa Swe Tree Biotechnologies centrada en la automatización de los sistemas de producción de coníferas mediante embriogénesis somática, etc.



Aztik itsaslasterren profilatzaile baten sekretuak argitu ditu, Kanadatik jitoan etorririk Bilbon aurkitu eta gero

testua eta argazkia A. T.

Groenlandia eta Kanada arteko Davis itsasartetik, Bilboko porturaino. Bide hori egin du itsaslaster-profilatzaile batek, orain gutxi Eusko Jaurlaritzako Arrantzako Ikuskapen Zerbitzuaren itsasontzi batek jaso zuen arte. Aztiko ikertzaileak arduratu dira hura garbitzeaz eta haren datuak deskargatzeaz. Jasotako tresna itsaslaster-profilatzaile bat da (hau da, korronteen abiadura, itsasoaren temperatura, gazitasuna eta lasterrak, besteak beste, neurtzen dituen gailu bat), zortzi buiako armazoi bati lotua. Eusten zion kabletik askatu zen 2012ko abenduan. Harrezkero, jitoan ibili da harik eta Bilboko portutik pare bat kilometrora jaso duten arte.

Aurkitu zutenean, lanpernek eta beste molusku batzuek inbaditua zuten gailua. Garbitutakoan jakin zuten Integrated Observational Platforms (IOP) erakundearen itsaslaster-profilatzaile bat zela; Washingtoneko Unibertsitateko ikerketa-talde bat da hori, Seattlen lan egiten duena (Estatu Batuak). Goi-mailako teknologia darabilen ekipo bat zen arren, Luis Cuesta Aztiko teknikariak arazorik gabe atera zituen han gordeta zeuden datuak, zentro teknologikoak itsaslasterrek aztertzeke erabiltzen dituen tresnen antzekoa baitzen. Eskuratutako datuak ikusita, jakin zen itsaslaster-profilatzailea 2011ko urriaren 5ean jarri zutela itsasoan, 67° 02,2' ipar eta 57° 02,1' mendebalde posizioan, Davis itsasartean. Tresna-lerro batean zegoen, zeina 690 metroko sakoneran ainguratua baitzegoen. Kablean, neurgailu bat baino gehiago jarrita zeuzkaten, besteak beste temperatura, gazitasuna eta itsaslasterrek neurtzeko. Aurkitutako profilatzailea, zehazki, 104 metroko sakoneran zegoen.

“Gailuaren memoria-txartelaren arabera, profilatzaileari eta gainerako gailuei eusten zion kablea 2012ko abenduaren 22an hautsi zen”, adierazi du Cuestak. “Baliteke kablea izotz-geruzen presioagatik haustea, edo arrantzaleen ekintza bandalikoren baten ondorioz”, gehitu zuen.

Ikusitakoak ikusita, Aztiko teknikarien teoria da Labrador izeneko itsaslasterrek bultzatu zuela profilatzailea hegoadlerantz, harik eta Golkoko itsaslasterrek harrapatu zuen arte.

Teoria hori berretsi egin zuten Washingtoneko Unibertsitateko espezialistek berek, Carlos Hernández Aztiko ikertzailea haiekin harremanetan jarri zenean. “Washingtoneko Unibertsitateak jakinarazi zigunez, –azaldu du Hernándezek– Davis itsasartean ainguratutako tresna-lerroko buietako bat Fogo uhartean agertu zen 2013ko maiatzan, Ternuako ipar-ekialdeko kostan (Kanada)”. Ikertzaileak azaldu duenez, “aurkikuntza honek berresten du Labrador itsaslasterrek eraman zituela bi elementu flotatzaileok ur azaletik hegoadlerantz, nahiz eta Bilboko portuan aurkitutakoak jitoan jarraitu zuen Golkoko itsaslasterrek harrapatu eta adarretako batek Kantauri itsasora eraman arte”. “Ipar Amerikako unibertsitateak eskerrak eman dizkigu –adierazi du Hernándezek– profilatzailean 2012ko abendutik urte eta erdiz metatutako informazioa berreskuratzeko aukera eman diegulako, bai eta balio material handia galtzea eragotzi dugulako ere, 23.000 dolarreko balioa baitu neurgailuak”.